

Kantu jolasa: karaokeak prestatzen ikasteko tailerra

Nire irakaskuntzako lan jardueran ([Euskal Girotze Barnetegia](#)), euskal abestiek hasieratik leku handia hartu dute. Ikasleekin abestiak lantzeko moduari dagokionez, hainbat etapa izan ditugu barnetegietan. Hasieran, lan egiteko era oso sinplea zen: ikasleek abestia aukeratu, biniloa martxan jarri eta idazmakinez egindako abesti-txostenetik irakurriz abesten genuen.

Informatika ailegatu zenean txostenak hobetzen joan ziren. Kasete eta binilotik KDra pasatu ginen. Orain, KD zein binilo guztiak mp3ra pasatuta, musika guztia digitalizatuta daukat. Era horretan, edozein bilduma edo trataera informatiko egiteko balia dezaket.

2005 urte inguruan, ikasleekin formatu eta jarduera berrien bila nenbilen. Karaokeak egiteko aukeren bila, programa batzuk probatzen hasi eta urtebetera-edo [KARAFUN](#) programa topatu nuen, erabiltzen oso erraza dena. Horren bidez lortzen diren emaitzak oso itxurosoak dira.

Orain, karaokeak egiteko [KARAFUN](#) nahikoa izan arren, efektu bereziak lortu nahian Pinnacle Studio erabiltzen hasi naiz. Hau da, Karafunen bidez esportazioa AVIra egiten dut eta gero artxibo hori bideo edizio programan jarritz, nahi dudana edizioa burutzen dut. Editatutakoa MPG2an gordetzen dut.

Azken ikasturteetan barnetegian karaokea oso ekintza indartsua izan da. Taldeak lau egunez egoten dira barnetegian, eta ikasleek, erdal girokoak izan arren, bigarren egunerako topera abesten dituzte prestatutako euskal kantuak. 2008an ikasle

batzuk Youtubean eskegitzeko eskatu zidaten, eta orduantxe hasi zen istorio hau:



Kanal honetan, eskegitzen ditut karaokeak. Hasieran mpg4an igotzen nituen; horregatik, lehenengo bi urteetan igotakoek kalitate txikiagoa dute. Orain mpg2an igotzen ditut. Barnetegitik pasatutako ikasle zein

irakasleek gogo handia adierazten dute, karaoke hauek eskolako beren jardueretan erabiltzeko.

Gaur egun nire [YOUTUBEko kanalak](#) 850 karaokeen muga gainditu du eta 21.000.000 bisitaren muga lortzeko bidean da.

2011n, kanalak zuen arrakasta ikusita, ia egunero eskaera, aholku zein proposamenen bat ailegatzeko baitzitzaidan, nuen dohaineko bloga gaurkotu egin nuen, blog bi berri sortuz: bata, Blogspoten, eta bestea, Wordpressen: <http://txatxangorria.blogspot.com.es/> eta <http://txatxangorri.wordpress.com/>

2012ko azaroan beste pauso bat eman nuen: <http://txantxangorria.eu/> domeinua sortu eta erosi egin nuen, blog berria diseinatzeko. Honek zazpi hilabetetan 22.000 bisita gainditu ditu:

Blog honetan topa ditzakezue nire karaokeak, nire abesti txosten batzuk, karaokeak nola egin, esteka interesgarriak...



ETA HAU GUZTIA NOLA ERABILI?

Nik nire lanean nola erabili dudana/duguna azaldu dut, gutxi gorabehera. Puntualki bestelako erabilerak ere egin ditut:

- **Bideoklip tailerra.**- Abesti bat aukeratu, eta sei eta hamar arteko ikasle taldeetxoek abestiaren testua eta denbora kontuan hartuko dute, grabazioa eta muntaia egin dezaten. Ikasleek egin behar dute testuaren azterketa.
- **Lipdub tailerra.**- Aurrekoan bezala, baina grabazioa dena segidan ([Egunero-Vendetta](#)).

Baina nik egin ditudanez aparte, karaokeekin beste zenbait esparrutan egindako bestelako erabileren berri ailegatu zait, batez ere irakaskuntzan.

- DBH-n eta Batxilergoan, **Literatura klaseetan** erabili izan dira, euskal abestiak eta olerkiak aztertzeko. Baita, informatika-gelan ere: ikasleak binaka edo hirunaka antolatuta, taldeetxo bakoitzak olerki bat hartu eta argazki egokiak aukeratuz karaokea egin. Tailer horiek prestatzeko, aholkuak eta laguntza eskatu izan didate.
- Haur eta Lehen Hezkuntzan, lehenengo zikloko irakasle batzuek adierazi didate karaokea tresna ezin hobea dela, **aurre-irakurketa** egiteko eta **irakurketaren abiada hobetzeko edo zailtasunak gainditzeko**.
- Hainbat ikastetxetan, haien blog eta webetan, nire blog edo youtube kanalen **loturak** jarri dituzte, ikasleek zein gurasoek etxean erabil ditzaten.
- Eskolako jai-egunetan: Euskararen eguna, Korrika, kurtso amaiera...

- Eta beste hainbat elkartek eta jendek ere egunez egun ematen didate haien erabileraren berri, eta horregatik esker ona: lagun koadrila, txoko, familia, jai batzorde, kanpoan euskara ikasten duen jendea, Erasmus-eko ikasleak, diasporako euskaldunak...
- ...

Tailerraren helburua

- Karaokeak nola prestatu, euskal musika gure ikasgeletan era ikusgarri eta erakargarri sartu eta erabil dezagun.
- Arte guztien artean musika dugu tresna indartsuenetarikoa sentimenduak adierazteko eta eragiteko. Sortutakoak euskararekin lotu.
- **Epe motzean eta epe luzean jokatu:** Landutako abestiak esperientzia goxo eta eraginkorrekin erlazionatu. Epe luzean, musika hori entzutean sortuko zaien emozio positiboak euskararekin lotu.